



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko otsailaren 21a

13. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Jagoletza Partekatuari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Jagoletza Partekatuari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Jagoletza Partekatuari buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2010eko ekainaren 8ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona zer testu izanen duen:

“1. artikulua. Guraso-ahala batera erabiltzea.

1. Guraso-ahala aitari eta amari batera dago-kie, nola seme-alaba adingabeko emantzipatuga-been gain, hala seme-alaba ezgaituen gain, eta ahal horrek bere barruan hartzen ditu ondoko eginbehar eta ahalmenak:

a) Seme-alabak jagotea, eurokin izatea, man-tenua ematea, seme-alabok hezte, zentzuz eta neurritz zuzentzea, eta heziketa egokia ematea.

b) Seme-alabei dagozkien egintzetan, horiek ordezkatzeta, lege ezin dituztenean beren kabuz halako egintzak gauzatu, salbu eta egintzok gurasoen administratziotik kanpo dauden ondasunei buruzkoak direnean.

c) Seme-alaben ondasunak administratu eta xedatzea aplikatzekoak diren arauetan ezarritako baldintzetan.

2. Aitak eta amak guraso-ahalari datxezkion eginkizunak hitzartutakoaren arabera bete behar dituzte, bai eta haurraren hazkuntzari eta garape-

nari buruzko erabaki eta betebehar guztiak ere, eta, itunik izan ezean, biek batera beteko dituzte, banatuta bizi arren, foru lege honetan ezarritako irizpideen arabera.”

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordezte proposatzen da:

“1 artikulua. Xedea eta helburuak.

1. Foru lege honek xede du arautzea seme-alaba adingabekoen zaintza eta jagoletza, beren gurasoen bizikidetzeta hausten den kasuetarako.

2. Foru legearen helburua da behar diren neurriak hartzea seme-alaben jagoletzari buruz hartzen den erabakiak kontuan har dezan seme-alaben interes gorenekoa eta gurasoen berdintasuna, eta gurasoen akordia erraztea familia-bitartekotzaren bidez.”

Zioak: Lege-arauketa berriaren xedea eta helburua adieraztea.

3. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiak aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“2. Foru lege honen helburua da ziurtatzea gurasoek harreman jarraituak izanen dituztela beren seme-alabekin, beren guraso-ahalaren era-

bileran biek parte hartuz seme-alaben hazkuntzan eta heziketan, modu arduratsuan, partekatuan eta berdinean. Orobat ziurtatuko da seme-alabek neba-arrebekin, aitona-amonekin nahiz gainontzeko ahaideekin eta hurkoekin harremana izaten jarrai dezatela.

3. Aurreko idatz-zatian ezarritakoaren ondorio-etarako, erraztu egingen da gurasoak ados jartzea foru lege honetan jasotzen den familia-bitartekotzaren bidez, eta, halaber, guraso-trebetasunak indartuko dira gurasokidetzaren babeserako programen bidez.”

Zioak: Batzordetik pasatu diren taldeen ekarpenak sartzea.

4. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEEK
AURKEZTUA**

2., 3., 6., 7., 8., 9. eta 10. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gaur egun, salbuespena da jagoletza partekatura jotzea baldin eta gurasoen artean adostasunik ez badago, eta foru legearen xedek izan behar du horrek dakarren problematika konpontzen saiatzea. Hori konponduta dago 1. artikuluentzat proposatzen den testuarekin; beraz, ez da egokia, ezta beharrezkoa ere, familia-harremanak eta familia-zuzenbide osoa arautzeari ekitea, eta hori da planteatzen dena, hain zuzen, kentzea proposatzen den artikuluetan. Zuzenbide zibilaren hain funtsezko alderdi bat berrikustekoa bete-betean eragiten dio Foru Berriari. Berrikustekotan, Foru Berria bera aldatuz egitea planteatu behar da, izanen lituzkeen ondorio guztiak modu zorrotz eta serioan aztertuta eta eztabaida sozial eta profesional zabal baten ondotik, horrela sakon aztertzeko modua egon dadin zer ondorio izanen lituzkeen berrikustetak beste erakunde juridiko batzuetan, benetako sistema bati buruz ari baikara, non denak perfektuki erlazionatuta egon behar baitu.

5. ZUZENKETA

**CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS
DE NAVARRA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona zer testu izanen duen:

“2. artikulua. Administrazio publikoen jardunbidea.

1. Botere publikoek beharrezko laguntza emanen diete guraso biei, guraso-ahala, kasu guztietan, batera erabil dezaten.

2. Botere publikoek beren erabakiak eta ekintzak bideratzerakoan, kontuan izanen dute, batek, guraso biek betebeharrak komunak dituztela haurraren hazkuntzan eta garapenean, eta, bestetik, aurreko printzipioarekin batera, adingabearen interese goren dagoela edozeren gainetik.

3. Nafarroako administrazio publikoek behar diren zerbitzu publikoak ezarriko dituzte betiere lortzeko guraso-ahalaren erabilera bateratua, eta, halaber, betiere batera gauzatzeko haurraren hazkuntzari eta garapenari buruzko betebeharrak.”

6. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK
AURKEZTUA**

2. artikuluko 1., 2., 3., eta 4. idatz-zatiak aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“1. Aita-amen bizikidetasuna hausteak ez die eraginen guraso-ahalak berezko dituen eskubideei eta betebeharrari.

2. Seme-alaba adingabeek eragiten dien erabaki, ebazpen eta neurri oro haien onurari eta interesei begira hartuko da.

3. Gurasoen bizikidetasuna haustetik heldu diren familia-harremanetan ondoko eskubideak errespetatuko dira:

a) Seme-alaba adingabeek eskubidea izanen dute gurasoekin erregulartasunez kontaktu zuzena izateko eta guraso-ahala erabiltzearen ondorioz haien interesei eragiten dieten erabakiak hartzean bi gurasoek parte hartzeko.

b) Gurasoek familia-harremanetan berdintasunerako eskubidea dute, seme-alaba adingabeek dagokienez.

4. Gatazkaren sistemara iritsiz gero, seme-alaba adingabeari entzun egin behar zaio, baldin eta behar besteko zentzutasuna badu, eta, betiere, hamabi urte baino gehiago baditu; argi zehaztu behar da nork entzunen dion adingabeari, eta zer helbururekin. Normalean, adingabeari entzun dakioke kontuan hartuta zer jokabide agertzen duen arlo desberdinetan: familian, eskolan, berdinen taldeetan...”

Zioak: 1., 2., eta 3. idatz-zatiak ñabardurak dira, eta, 4. idatz-zatiari dagokionez, esan behar da garrantzitsua dela adingabeek ez izatea erabakiak haiek hartu behar izatearen sentipena. Erabakiak helduek hartzen dituzte, eta kontu handia izan behar da "leialtasunen gatazka" deiturikoarekin.

7. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

II. kapituluari beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa.

Testu berria:

"2. bis artikulua. Bizikidetzaren haustura aurreikusten duten kontratuak.

1. Ezkontideek edo bikote egonkorreko kideek aukera izanen dute, ezkondu edo bikote egonkorra osatu aurretik, kontratu bat sinatu eta, besteak beste, araututa uzteko nolakoak izanen diren seme-alabekiko familia-harreman berriak, bizikidetzaren haustura bada.

2. Kontratu horien edukia izanen da familia-harremanei buruzko planetarako edo hitzarmen arau-emailetarako aurreikusita dagoena.

3. Familia-haustura aurreikusten duten kontratuak baliozkoak izateko, eskritura publikoan egin beharko dira.

4. Hausturaren aurretik adostutako kontratua baliozkoa izanen da eta sinatzaileak behartu egingen ditu, baita hitzarmen arau-emaile baten gutxieneko alderdi guztiak jasotzen ez baditu ere. Hala bada, kontratuaren baliozkotasuna eta eraginkortasuna hitzartutako alderdietara mugatuko da.

5. Kontratua aldatu ahal izanen da familia-harremanei buruzko planak edo hitzarmen arau-emaileak aldatzeko onartzen diren arrazoi berengatik."

Zioak: Gero eta ohikoagoa da ezkontza aurreko itunak edo antzekoak sinatzea, eta kontuan izan behar dira.

8. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona izanen duen testua:

"II. KAPITULUA

Guraso-ahala batera erabiltzeari buruzko ituna

3. artikulua. Guraso-ahala batera erabiltzeari buruzko ituna.

1. Gurasoek itun bat sina dezakete hitzartzeko nola erabili batera guraso-ahala; bertan jasoko dira zein izan diren haurren gaineko erabaki eta betebeharrak guztiak beren zaintzari, laguntzari, hazkuntzari eta garapenari dagokienez.

2. Guraso-ahala batera erabiltzeari buruzko itunak betiere errespetatuko du, batetik, guraso biek haurren hazkuntzan eta garapenean betebeharrak komunak dituztela dioen printzipioa, eta, bestetik, adingabearen interes gorena.

3. Itun horretan, era berean, errespetatu egingen da haurrak duen harreman-beharrak neba-arrebeekin, aitona-amonekin nahiz gainontzeko ahaideekin eta hurkoekin.

4. Guraso-ahala batera erabiltzeari buruzko itunak, behin gurasoek formalizatuta, erabateko baliozkotasuna izanen du, baina organo judizial batek espresuki berretsi beharko du edo, kasua bada, organo administratibo eskudun batek."

9. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

"1. Guraso biek, bai elkarrekin ados jarrita edo bakoitzak bere aldetik, banantzea edo dibortzioa eskatzean edo izateko bikotea haustean, epaileari familia-harremanei buruzko itun-proposamen bat aurkeztu beharko diote."

Zioak: Lege honen lehentasunetako bat da adostasunera iristea, eta, horretarako, aldean betebeharrak batek izan behar du aurkeztea zer plan proposatzen duten familia-harremanei buruz.

10. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 2. idatz-zatiko d) letra aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“d) Gurasoetako bakoitzak izanen duen parte-hartzea seme-alaben gastu arruntak ordaintzen laguntze aldera, baliabide ekonomiko berekirik ez duten seme-alaba adindunenak edo emantzipatuenak barne, kudeaketa-sistema, ordainketa-modua, gaurkotzeko irizpideak eta, kasua bada, ordainketa-bermeak. Orobat zehaztuko da zer sartzen den aparteko gastuen barruan, eta ezarriko da gastuon aurreikuspena eta gurasoetako bakoitzak horietarako egin beharreko ekarpena.”

Zioak: Batetik, garrantzitsua da argi zehaztea nola kudeatuko diren ordainketak: aurrezki-libreta komun batean, bakoitzak gastu batzuk hartuko dituen bere gain, etab. Bestetik, oso sarritan pizten den eztabaida izaten denez zein gastu den apartekoa eta zein ez, beharrezkoa da alde zuretik zehaztea zein diren gastuok, eta bakoitzak zer neurritan egingen dien aurre.

11. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 2. idatz-zatiari letrak gehitzeko zuzenketa.

Testu berria:

“g) Adingabeak zein etxebizitzatan biziko diren, eta etxebizitza horiek bat edo gehiago izanen diren.

h) Zer sistemaren arabera hartuko dituzten guraso biek erabakiak seme-alaben hezkuntzaren eta osasunaren gainean, bai eta guraso-ahal partekatuak berezkoak dituen gainerako erabaki guztiak ere.

i) Zertarako erabiliko den senar-emazteen etxebizitza.

j) Bide judizialaren aurretik familia-bitartekotzara jotzeko aurreikuspena eta konpromisoa, hausturaren ondotik sor daitezkeen problemak elkarriketaren bidez konpontzea helburu.

k) Alderdiak beharrezkotzat jo dezaketen beste edozein.

l) Ezkontza aurreko itunik edo antzekorik baldin badago, hori ere erants daiteke.”

Zioak: Zentzukoa da itunean erabakita utzi beharra senar-emazteen etxebizitza zehazki zertarako erabiliko den, bai eta non eta zer egoera zehatzean bizi behar duten seme-alabek. Hausturaren ondotik, elementu gatazkatsuenetakoak dira guraso biek seme-alaben hezkuntzaren, osasuna-

ren, oporren, eskolaz kanpoko jardueren, eta abarren gainean hartu beharreko erabakiekin zerikusia dutenak. Horregatik, garrantzitsua da gurasoek ahalik eta gehiena zehaztea nola hartuko duten biek parte erabaki horietan, bai eta zer mekanismo erabiliko dituzten ados ez badaude.

Horrela, familia-bitartekotza funtsezko pieza bat da hausturaren ondoren; horregatik da garrantzitsua itunean adierazita uztea zerbitzu hori erabiltzen ahalko dela.

Bikote bakoitza berezia denez, gomendagarria da beste akordio batzuentzat ere atea irekita uztea; hau da, hemen jasota ez baina bikotearentzat garrantzitsuak izan daitezkeen gaiei buruzko beste akordio batzuentzat. Garrantzitsua da itun estandarrek ez egitea. Egiten diren itunek kontuan izan behar dute familiaren errealitatea: gurasoen laneko egutegiak, ordutegiak barne, eta, halaber, seme-alaben jardueren egutegiak eta ordutegiak.

12. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“3. Familia-harremanei buruzko hitzarmena, ondoko kasuetan, aldatu edo iraungi ahalko da:

a) Gurasoak ados jarrita.

b) Familia-harremanei buruzko hitzarmenean berean jasota ageri diren arrazoiekin bat.

c) Aldeetako batek eskatuta, garrantzizko inguruabarrak jazo direlako.

d) Fiskaltzaren ekimenez, adingabeen eta ezgaituen eskubideak babesteko duen eginkizunarekin bat.

e) Familia-harremanei buruzko hitzarmenari gaineratu zaiolako gurasoetako baten guraso-ahala kentzea, etetea edo iraungitzea.

f) Hitzarmeneko betekizunak modu larrian edo behin eta berriz urratzea”

Zioak: Gai batzuk argitzea.

13. ZUZENKETA

**CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS
DE NAVARRA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona izanen duen testua:

“III. KAPITULUA

Guraso-ahala batera erabiltzea,
aldez aurretik itunik izan gabe

4. artikulua. Desadostasunei aurre egiteko moduak.

1. Gurasoak ez badira ados jartzen guraso-ahala batera erabiltzean, desadostasuna Ahaide Nagusien edo Bitartekotza Zerbitzu Publikoaren esku utziko da, baldin eta guraso biek batera eskatzen badute hori, edo, bestela, eskuduna den organo judizialaren esku, guraso bietako edozeinek hala eskatzen badu.

2. Guraso-ahala batera erabiltzeari buruzko auziak konpondu aurretik, nahitaez entzun behar ko zaie guraso biei, eta gurasook adiskidetzeko saioa eginen da.

3. Guraso bien aldez aurreko parte-hartze nahitaezkoan, bietako bakoitzari eskatuko zaio guraso-ahalaren erabilera bateratuari buruzko proposamen bat egin dezan haurren hezkuntzaren eta garapenaren gaineko erabakiei eta betebeharrei buruz.

4. Aldez aurreko adiskidetze saio nahitaezko hori eginen da organo judizialak, behin Ministerio Fiskala entzunda, hobeki iritzitako bitartekoaren bidez, nahiz eta joerak izan behar duen aldez aurreko adiskidetze hori Bitartekotza Zerbitzu Publikoaren esku uztea.

5. Nafarroako Gobernuak bitartekotzako zerbitzu publiko bat ziurtatuko du, zeina epaitegiaren beharretara egokitua egonen baita. Bitartekotzako zerbitzuaren doakotasuna erabakitzeke, doako justizia izateko eskubideari buruzko arauetako irizpideak erabiliko dira.”

14. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK
AURKEZTUA**

4. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“1. Gurasoek familia-bitartekotza erabiltzen ahalko dute akordio-konpromiso bat lortze aldera, besteak beste, jagoletzaren araubideari eta orientabide familiarrari buruz, zeinaren helburua baita harreman familiarrak erraztuko eta normalizatuko dituzten trebetasun eta abileziak eskuratzea eta horiek lagungarri gertatzea guraso-ahal bateratua erabiltzeko moduari buruzko erabakiak hartzean. Familia-bitartekotza nahitaezkoa izanen da gurasoek espresuki hala hitzartu bazuten hausturaren aurretik.”

Zioak: Nafarroan indartu beharra dago bitartekotzaren kultura, eta, horregatik, komeni da akordiorik ez duten bikote guztiak, beste ezeren aurretik, bitartekotza-zerbitzura bidaltzea, ezagutu dezaten gutxienez. Era berean, gurasokidetzarako orientabidea funtsezko pieza bat da dibortzioa gertatzen ari den bitartean eta ondotik. Gurasokidetzarako orientabide horrekin ulertzen dena da trebetasun-, jokabide- eta gaitasun-multzo bat eskuratzea, halako moduz non, horien bidez, hausturaren ondotik, erraztu eta normalizatu eginen den gurasoen arteko harremana eta gurasoek seme-alabekin duten harremana.

15. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK
AURKEZTUA**

4. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“2. Demanda judiziala aurkezten baldin bada, epaileak, gurasoen arteko akordioa errazte aldera, bitartekotzaren bidezko konponbidea proposatu ahalko die eta familia-bitartekari bat izendatu hartara. Epaileak, halaber, familia-bitartekotzari buruzko informazio-bilera batera joateko beharra ezarriko du, aldeek jakin dezaten bitartekotza horrek nola funtzionatzen duen eta zer onura dituen. Bilera horretan, gainera, gurasokidetzarako orientabidea zer den eta zer onura dituen azalduko zaie, eta zer zerbitzu dauden. Behin informazio-bilera amaituta, aldeek epaileari komunikatzen ahalko diote familia-bitartekotza erabiltzeko asmoa dutela, eta bitartekaria proposatuko dute, edo, aldiz, erabaki dutela beren dibortzioa modu gatazkatsuan ebatzi nahi dutela. Epaileak azken zerbitzu horretarako laguntza ere proposatzen ahalko die.”

Zioak: Bitartekotza-zerbitzua neutrala eta borondatezkoa denez, aldeek onartzen ez duten bitartekari jakin bat inposatzeak bitartekotzaren oinarritzko printzipioetako bat hautsiko luke.

Epaileak, Frantzian gertatzen den bezala, akordiorik gabe aurkezten diren kasu guztiak familia-bitartekotzako zerbitzura bidaltzen ditu, jakin dezaten zerbitzu hori zer den eta zer aukera eskaintzen dituen.

Nafarroan indartu beharra dago bitartekotzaren kultura, eta, horregatik, komeni da akordiorik ez duten bikote guztiak, beste ezeren aurretik, bitartekotza-zerbitzura bidaltzea, ezagut dezaten gutxienez. Era berean, gurasokidetzarako orientabidea funtsezko pieza bat da dibortzioa gertatzen ari den bitartean eta ondotik. Gurasokidetzarako orientabide horrekin ulertzen dena da trebetasun-, jokabide- eta gaitasun-multzo bat eskuratzea, halako moduz non, horien bidez, hausturaren ondotik, erraztu eta normalizatu eginen den gurasoen arteko harremana eta gurasoek seme-alabekin duten harremana.

16. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEEK
AURKEZTUA**

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

“3 artikulua. Familia-bitartekotza.

1. Aurreko artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, gurasoek erabaki dezakete, beren borondatez, eta akordio bat lortze aldera, dituzten desadostasunak familia-bitartekotzaren bidez konpontzen saiatzea. Era berean, epaileak bitartekotza bidezko konponbide bat proposatzen ahalko du demanda judiziala aurkezten bada.

2. Familia-bitartekotzaren bidez lortutako akordioak dokumentu batean jaso beharko dira, epaileak, hala erabakiz gero, onets ditzan.

3. Foru lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, Nafarroako Gobernuak familia-bitartekotzako zerbitzu publiko eta inpartzial bat jarriko du aldean eskura.”

Zioak: Gure ordenamenduan familia-bitartekotzaren aipamena sartzeari, halako moduz non gure erkidegoan egon dadin sistema horretara jotzeko modua.

17. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK
AURKEZTUA**

4. artikuluko 3. eta 5. idatz-zatiak aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“3. Prozedura judiziala abiatu ondoren, elkarrekin adosturik, gurasoek noiznahi eskatu ahalko diote epaileari prozedura bertan behera utz dezan, familia-bitartekotzaren mende jartzeko, eta bertan behera uzte hori bitartekotza izapidetzeko behar den denborarako erabakiko da. Prozedura judizialak jarraipena izanen du baldin eta aldeetako batek eskatzen badu edo bitartekotzan akordio bat lortzen bada.

5. Familia-bitartekotza ezin izanen da inolaz era baliatu foru lege honetako 7.8 eta 7.10 artikuluetan ezarritako kasuetan”

Zioak: 3. idatz-zatian, gai batzuk argitzea, eta, bestalde, aipatutako artikulua gehitzea.

18. ZUZENKETA

**CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS
DE NAVARRA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona izanen duen testua:

“5. artikulua. Ahaide Nagusien parte-hartzea.

1. Gurasoek, guraso-ahal bateratua erabiltzeari buruzko desadostasunak badituzte, eta biek espresuki erabakitzen badute, Ahaide Nagusien parte-hartzea eskatuko dute, Nafarroako Foru Berriko 137. legetik 147. legera bitartekoetan ezarritakoarekin bat.

2. Edozein unetan, guraso bietako edozeinek jo dezake, Ahaide Nagusiek parte-hartzeko eskaerari uko eginda, Familia Bitartekotzako Zerbitzura edo organo judizial eskudunarengana.

3. Ahaide Nagusiek parte hartzeari uko eginen diote, baldin eta inork Bitartekotza Zerbitzura nahiz organo judizial eskudunarengana jo badu, edota ukitutako edozein adingabe aurka agertzen bada.

4. Ahaide Nagusiek berehala aginduko dute aurretik egin beharreko bi gurasoen nahitaetzko adiskidetzeari saioa egin dezala Bitartekotza Zerbitzu Publikoak.

5. Ahaide Nagusiak betiere saiatuko dira guraso biek guraso-ahal bateratuari buruzko erabaki posible oro har ditzaten.

6. Ahaide Nagusiek, beren erabakian, kontuan izanen dituzte guraso biek nahitaez egin behar dituzten proposamenak guraso-ahal erabilera bateratuari buruz eta haurren zaintzaren, laguntzaren, hazkuntzaren eta garapenaren gaineko bete-behar guztiei buruz.

7. Ahaide Nagusien erabakia berretsi egin beharko du erakunde judizial eskudunak; hain zuzen ere, zaindu behar duenak errespetatzen ote diren, batetik, haurraren hazkuntza eta garapenean gurasoek betebeharrak komunak dituztela dioen printzipioa eta, bestetik, adingabearen interes gorena.”

19. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“1. Gurasoetako bakoitzak, bere aldetik nahiz biak batera ados jarrita, epaileari eskatu ahalko diote seme-alaba adingabeen edo ezgaituen zaintza eta jagoletza bien artean partekatzea edo haietako batek bakarrik hartzea bere gain. Eskaera horrekin batera, harreman familiarrei buruzko itun-proposamen bat aurkeztuko da, lege honetako 3. artikuluan jasotakoa kontuan hartuta.

2. Guraso bat jagoletza partekatua aurka egotea edo gurasoen arteko harreman txarra ez dira oztopo izanen ezta behar adinako arrazoi ere erabaki ahal izateko jagoletza partekatua ez datorela adingabearen interes onenarekin bat.

3. Epaileak jagoletza partekatua formula aukeratuko du, gurasoen ardurakidetasunaren printzipioari jarraituz adingabeen interesei hobeki erantzuten dien formula gisa, eta kontuan hartuta adingabeek harreman jarraitua behar dutela guraso biek, non eta, kasuaren arabera, ez den jagoletza banakakoa egokiena. Erabaki hori hartzeko, epaileak kontuan hartuko du gurasoetako bakoitzak aurkeztutako familia-harremanei buruzko plana, eta gutxienez honako faktoreak hartuko ditu aintzakotzat:

- a) Seme-alaben adina.
- b) Seme-alaben gizarte- eta familia-loturak.

c) Seme-alaben iritzia, baldin eta behar beste zentzutasuna badute, eta, betiere, hamabi urte baino gehiago badituzte, bereziki aintzat hartuta hamalau urtetik gorakoena. Normalean, adingabe-ari entzun dakioke kontuan hartuta zer jokabide agertzen duen arlo desberdinetan –familiar, eskola, berdinen taldeetan...–, halako moduz non leialtasunen gatazka posibleak saihestuko diren.

d) Gurasoen gaitasuna eta borondatea seme-alaben egonkortasuna ziurtatzeko.

e) Gurasoen familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko aukera.

f) Gurasoetako bakoitzak zer jarrera duen bere betebeharrak arduratzeari dagokionez, bestearen eskubideak errespetatzeari dagokionez, eta, bereziki, elkarren artean lan egin eta seme-alabek guraso biekiko harremana eta beren familia zabalikiko harremana ziurtatzeari dagokionez.

g) Gurasoen artean alde aurretik egon litezkeen akordioak eta itunak.

h) Bizikidetasunari begira garrantzi berezia duen beste edozein inguruabar.

4. Epaileak, erabakia hartu aurretik, bitarteko-tza-zerbitzuko txosten medikoak, sozialak edo psikologikoak eskatu ahalko ditu, espezialista behar bezala kualifikatu eta independenteenak, ofizioz nahiz alderdi batek hala eskatuta, familia-erantzukizuna baliatzeko moduaren eta adingabeen jagoletzari buruzko araubidearen egokitasunari buruz. Kasuren batean haurdunaldiaren borondatezko etetea eskatzeko txostenik egin bada, txostenok ezin izanen dira inondik ere erabili argudiatzeko ama ez dela jagoletzarako egokia.

5. Epaileak, ikusita txosten sozialak, medikoak, psikologikoak eta bidezkoak diren gainerakoak, eta adingabeen interes gorena ziurtatzeko beharrezkoa iruditzen bazaio, gurasoetako bati bakarrik ematen ahalko dio adingabeen jagoletza eta zaintza. Hala egiten badu, beste gurasoarekin komunikatzeko, egoteko edo bisitak egiteko araubide bat ezarriko da, guraso-ahal bateratuaren erabilera ziurtatze aldera halakorik balego, eta familia zabalarekin komunikatzeko, egoteko edo bisitak egiteko araubide bat ere ezarriko da.

6. Epaileak, jagoletza partekatuko kasuetan, gurasoetako bakoitzaren eta seme-alaben arteko bizikidetasunari buruzko araubide bat ezarriko du, familiaren egoerari egokitu, bi gurasoei ziurtatze aldera berdintasunez baliatu ahal izatea haien eskubideak eta betebeharrak.

7. Non eta berariaz justifikatutako inguruabarrak gertatzen ez diren, ez da neba-arrebak banatzea dakarren konponbiderik hartuko.

8. Ez zaio gurasoetako bati zaintza eta jagoletza ez banakakoa ez partekatua ere emanen, baldin eta beste gurasoaren edo seme-alaben bizitzaren, osotasun fisikoaren, askatasunaren, osotasun moralaren edo sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurka atentatzeagatik abiatutako prozesu penal batean sartuta badago eta kriminalitate-zantzu arrazoizkoak jasota dauden ebazpen judizial arrazoitua eman bada.

9. Aurreko artikuluan xedatuarekin bat, genero indarkeriako edo familia barruko indarkeriako salaketa huts bat ez da bera bakarrik nahikoa izanen ukatzeko jagoletza eta zaintza partekatua edo adingabearekiko bizikidetzako araubide bat. Jagoletza eta zaintza partekatua ukatzeko nahikoa izanen da:

a) Epaileari iruditzea badela egoera horren zantzu arrazionalik.

b) Egoera hori frogatzen duen txostenen bat egotea, epaileak edo aldeetako batek izendatutako espezialistaren baten edo lan-talde psikosozialarena.

10. Jagoletza eta zaintza partekatua ere ez da emanen, baldin eta epai irmo batek gurasoetako bat kondenatu badu genero indarkeriagatik edo familia barruko indarkeriagatik.

Nolanahi ere, kasu horietan hartutako neurriak berraztertu ahalko dira, baldin eta zigor jurisdikzioan horri buruzko ebazpen irmoa ematen bada, edota neurri haiek hartzeko inguruabarretan funtsezko aldaketa gertatzen bada?

Zioak: Gaur egun, gurasoetako bat jagoletza partekatuaren aurka agertzea nahikoa denez jagoletza partekaturik ez izateko, jagoletza mota hori ezohikoa da; kasurik gehienetan, ezezko horren arrazoia da gurasoen arteko harreman txarra edo jagoletza partekatuaren gaineko ezjakintasuna.

3. artikuluan eskatzen denarekin koherente izatearren, gurasoak ados daudenean itun-proposamenak formatu jakin bat behar badu, gurasoak ados ez daudenean ere formatu bera behar du. Horrela, epaileak errazago ikusiko ditu:

– Zer puntutan ez dauden ados.

– Akordiorako zer aukera dauden.

– Guraso bietako zeinek duen harremana errazteko joera handiagoa.

– Ezkondu aurreko itunik, edo antzekorik bestela, ba ote dagoen.

Jagoletza eta zaintza partekatuaren helburu nagusia da ahalbidetzea haurrek guraso biek harremana izatea. Beraz, jagoletza eta zaintza partekatua eman behar ote den baloratzeko espresuki erabili behar den irizpideetako bat da gurasoen jarrera jagoletza eta zaintza partekatuari dagokionez. Frantziako arauak eta beste batzuek jasotzen duten moduan, oinarrizko irizpideetako bat da ikustea bi gurasoetako zein izan den hausturaren ondotik haurren eta gurasoen nahiz familiako arteko harremana errazteko joera handiena izan duena, eta haren alde gitea.

Bestalde, garrantzitsua da kontuan hartzea eta baloratzeko ezkondu aurreko akordioak, hitzarmenak edo antzekoak.

20. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztzea proposatzen da:

“5. artikulua. Seme-alaben zaintza eta jagoletza.

1. Bizikidetzak hausten bada, gurasoetako bakoitzak bere aldetik, nahiz biek batera, ados jarrita, epaileari eskatu ahalko diote seme-alaba adingabeen edo ezgaituen zaintza eta jagoletza biek hartzea beren gain, edo batek bestela.

2. Eskaera gurasoetako batek bakarrik egiten badu, epaileak erabakiko du jagoletza eta zaintza zein eratakoa izanen den, partekatua ala banakakoa; horretarako, Ministerio Fiskalari entzun beharko dio, eta, alde aurretik, eskatu beharrekoak iruditzen zaizkion irizpenak ikusi eta entzunaldiak gauzatu ere bai, seme-alaben interesentzat hala komeni denean.

3. Epaileak erabakiko du zein den jagoletza-mota komenigarriena seme-alaba adingabeen intereserako, kontuan hartuz gurasoetako bakoitzak zer eskaera aurkeztu duen eta aintzat hartuz, foru lege honetan xedatutakoaz gainera, hurrengo faktoreak:

a) Seme-alaben adina.

b) Gurasoen arteko harremana, eta, batez ere, gurasoetako bakoitzak zer jarrera duen bere bete-beharrez arduratzeari dagokionez, bestearen eskubideak errespetatzeari dagokionez, eta, bereziki, elkarren artean lan egin eta seme-alabek guraso biekiko harremana eta beren familia zabalikiko harremana izateari ziurtatzeari dagokionez.

c) Seme-alaben gizarte- eta familia-loturak.

d) Seme-alaben iritzia, baldin eta behar beste-ko zentzutasuna badute, eta, betiere, hamabi urte baino gehiago badituzte, bereziki aintzat hartuta hamalau urtetik gorakoena.

e) Gurasoen gaitasuna eta borondatea seme-alaben egonkortasuna ziurtatzeko.

f) Gurasoen familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko aukera.

g) Gurasoen artean alde zuzenetik egon litezkeen akordioak eta itunak, baldin eta horiek justifikatu badizkiote.

h) Bizikidetasunari buruzko araubideari begira garrantzi berezia duen beste edozein inguruabar.

4. Nolanahi ere, erabakiaren helburua izanen da bateratzea, ahal bada, jokoan diren interes guztiak, kontuan hartuz lehentasuna dutela seme-alaba adingabeen edo ezgaituen interesek, eta ziurtatuz gurasoek berdintasuna izanen dutela seme-alabekiko beren harremanetan horien onuragarri den orotan.

5. Epaileak jagoletza partekatua erabakitzen badu, gurasoetako bakoitzaren eta seme-alaben arteko bizikidetasunari buruzko araubide bat ezarriko da, familiaren egoerari egokitu, bi gurasoei ziurtatze aldera berdintasunez baliatu ahal izatea haien eskubideak eta betebeharrak.

6. Jagoletza banakakoa erabakitzen badu, epaileak beste gurasoetikiko komunikazio-, egonaldi- edo bisita-araubide bat ezarriko du, hark ziurtatuta izan dezan Nafarroako Zuzenbide Zibilarren Konpilazioko 63. legearen arabera esleituta dituen guraso-ahalaren berezko ahalmen eta betebeharren erabilera.

7. Non eta berariaz justifikatutako inguruabarrak gertatzen ez diren, ez da neba-arrebak banatzea dakarren konponbiderik hartuko.

8. Ez zaio zaintza eta jagoletza gurasoetako bati emanen, ez partekatua ez banakakoa, hurrengo bi baldintza hauek batera ematen badira:

a) Beste gurasoaren edo seme-alaben bizitzaren, osotasun fisikoaren, askatasunaren, osotasun moralaren edo sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurka atentatzeagatik abiatutako prozesu penal batean sartuta badago.

b) Kriminalitate-zantzu arrazoizkoak eta funtsatuak daudela dioen ebazpen judizial arrazoitua eman bada.

Ez zaio zaintza eta jagoletza emanen, ezta ere, baldin eta epaileak ikusten badu, alderdien alega-

zioei eta egindako frogei erreparatuta, etxeko edo genero indarkeriaren zantzu funtsatuak eta arrazoizkoak daudela.

Bi kasu horietan hartzen diren neurriak berraztertutako ahalko dira, baldin eta zigor jurisdikzioan horri buruzko ebazpen irmoa ematen bada.

Ezkontide edo bikotekide baten aurkako salaketa ez da nahikoa izanen, berez, modu automatikoan ondorioztatuzko bestearenganako edo seme-alabenganako indarkeria edo mehatxuak daudela, edo horiei kalteak eragiten zaizkiela, eta ez da nahikoa izanen seme-alaben zaintza eta jagoletza gurasoetako bati emateko.”

Zioak: Gure foru zuzenbide zibilean arautze gutxieneko bat sartzea, halako eran non modua egon dadin jagoletza partekatua eta banakakoa berdintasunez tratatuak izateko eta epailearen esku uzteko, ebatzi beharreko kasu zehatz bakoitzean, erabakitzea zein den bietatik egokiena, lehentasuna emanez betiere adingabearen interesari, eta, ahal denean, gurasoen interesak bateratuz eskubide eta betebeharren berdintasun batean.

21. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko 5. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Idatz-zati horren edukia 5. artikulua aldatzeko zuzenketan dago.

22. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. eta 6. artikuluen hurrenkera aldatzeko zuzenketa: lehenbizi 6. artikulua jartzea, eta horren ondoren jartzea 5.a.

Zioak: Hori da logikak agintzen duena.

23. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona izanen duen testua:

“6 artikulua. Bitartekotza.

1. Gurasoak beren adostasunak familia-bitartekotzaren bidez konpontzen saia daitezke, horretarako Bitartekotzako Zerbitzu Publikora joz edo kasuan kasuko elkargoek gaitutako profesionalarengana edo profesionalengana.

2. Profesionalen bitartekotza-lana kasuko legean ezarritakoaren arabera gauzatuko da, eta jokabiderako arau eta erregela deontologiko eta profesionalen arabera.

3. Bitartekotza-lanak organo judizial eskudunak esaten duenaren menpe geldituko dira guraso biek edozeinek hala erabakitzen duen unean.

4. Nafarroako Gobernuak Bitartekotzako Zerbitzu Publiko bat ezarriko du alde zuzeneko adiskidetzegintzetarako, bai eta guraso-ahalaren erabilerekin zerikusia duten gaitetan partikularrek edo organo judizial eskudunak eskatutako bitartekotza-, laguntza- eta aholkularitza-lanetarako ere.

5. Elkargo profesionalak zehaztu egiten dute zer baldintzatan parte har dezaketen bitartekotzaren, laguntzaren eta aholkularitzaren profesionalak guraso-ahalaren erabilerekin zerikusia duten gaitetan.”

24. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“2. Epaileak, ofizioz nahiz seme-alaba adingabeek, edozein ahaidek edo pertsona interesdunek edo Fiskaltzak eskatuta, behar diren neurriak ezarriko ditu, ondokoak helburu:

a) Ziurtatzea seme-alaba adingabeek gurasoetako bakoitzarekiko loturak egiaz gordetzen dituztela eta loturak jarraipena duela, eta beste horrenbeste neba-arrebekin, aitona-amonekin nahiz beste ahaideekin eta hurkoekin.

b) Ekiditea gurasoetako batek edo hirugarrenek seme-alaba adingabeak oatea.

c) Ekiditea seme-alabei nahasmendu kaltegarriak, zaintzaren eta jagoletzaren titulartasuna aldatzen den kasuetan.

d) Ziurtatzea, guraso-ahal bateratua dagoenean, guraso biek erabiliko dituztela guraso-ahal horrek berezkoak dituen eskumenak.”

Zioak: Guraso-ahalaren erabilera gatazka-iturri izan ohi da, ez baita zehatza eta ez baitago meka-

nismo arinik zehazturik sortzen diren problemak konpontzeko.

25. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“4. ...edo betearazpen judizialari buruzko arauetan ezarritakoarekin bat betetzeko exijentzia, irizpide direla betiere adingabearen interesa eta bi gurasoetako zein izan den joera handiena izan duena haurren eta gurasoen nahiz familia zabalekoen arteko harremana errazteko, hura babestea.”

Zioak: Europako beste legedi batzuetan gertatzen den moduan, hitzartutakoa betetzen ez duen gurasoari edo seme-alabekiko harremana oztopatzen duen gurasoari jagoletza kentzeko mehatxu soila, guraso bietatik eskuzabalarenaren mesedetan, disuasio-neurri garrantzitsua da.

26. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona izanen duen testua:

“7 artikulua. Organo judizial eskudunaren eskuhartzea.

1. Guraso bietako edozeinek edo kaltetutako edozein adingabek eskatuta, edo legez hala ezarritako dagoelako, organo judizial eskudunak parte hartuko du erabakitzeko, aplikatzekoa den legedian ezarritako prozedurekin bat, nork baliatuko duen guraso-ahala.

2. Nafarroako Foru Berriko 63. legean aurreikusitako adiskidetzegintza lortzen saiatzeko, organo judizial eskudunak, egoki iritzi gero, tramite hori bitartekotzako profesionalen esku utz dezake.

3. Edonola ere, prozedura judiziala hasi aurretik, ziurtatuta geldituko da gurasoek informazioa jasotzeko duten eskubidea gauzatuko dela; informazioa, hain zuzen ere, haurren hazkuntza eta garapenean gurasoek betebeharrak dituztela dioen printzipioari buruz eta interes gorena adingabearena izateari buruz.

4. Guraso biei entzuteko tramitean, zeina Foru Berriko 63. legean eta Kode Zibileko 159. artikuluan aurreikusita baitago, proposamen bat eskatuko da guraso-ahala batera erabiltzeari eta guraso-betebeharrak batera betetzeari buruz.

5. Ukitutako adingabearen edo adingabeen iritzia entzuten da; hain zuzen ere, gurasoak batera bizi zirenean beren betebeharrak betetzeko zuten moduari buruz eta gurasoek, banatzen direnerako, guraso-ahala batera eta modu partekatuan erabiltzeari dagokionez eginiko proposamenei buruz.

6. Guraso-ahalaren erabilerari buruzko erabakiak eta guraso biek haurraren hezkuntzarekiko eta garapenarekiko dituzten betebeharrak buruzko erabakiak bideratuta egonen dira betetzera eta, ahal izanez gero, lehenbailehen lortzera guraso-ahalaren edukia osatzen duten betebeharrak guzti-guztien erabilera izan dadila komuna eta egoki banatua: zaintza, arreta, konpainia eta bizikidetzak, hezkuntza, zuzentasuna, ordezkariak eta administrazioa.

7. Nafarroako Gobernuak eta, hala egokitzen bada, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek organo judizial eskudunen eskura jarriko dituzte beharrezkoak diren bitarteko eta zerbitzu guztiak, hala errazteko ezen erabaki judizialek ziurta dezatela guraso-ahalaren edukia osatzen duten betebeharrak guzti-guztien erabilera izan dadila komuna eta egoki banatua: zaintza, arreta, konpainia eta bizikidetzak, hezkuntza, zuzentasuna, ordezkariak eta administrazioa.

Bitarteko eta zerbitzu horiek bereziki izanen dituzte xede gurasokidetzako betebeharren gauzatzeko bateratua ezartzerik izan ez duten erabaki judizialak, halako moduz non lehenbailehen ziurta dadin lortuko direla baldintza egokiak guraso biek bere gain har dezaten duten ardurakidetzak haurraren zaintzan, garapenean, harenganako arretan eta harekiko bizikidetzan."

27. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

"1. Gurasoen artean ez badago epaileak onetsitako akordioarik, eta ezarrita baldin badago partekatua edo banatua izanen dela jagoletza, eta ezarrita badago, halaber, zertarako erabiliko diren etxebizitza eta bertan erabili ohi diren gauzak, likidatzeko moduan geldituko dira bizilekua eta bertako gauzakiak eta ostilamendua, baldin eta guraso

biak titularkideak badira, edozein dela ere ondasun-erkidegoaren araubidea; horiek likidatzeko modua izanen da hirugarren bati transmititzea edota titularkidea den ezkontideetako bati esleitzea horien jabetza, dagokion ordain ekonomikoa emanda besteari. Hori dena, Foru Berriaren 374. legearekin bat egingen da, non erkidego indibisoreen zatigarritasuna arautzen baita. Betiere, baldintzok bete beharko dira gutxienez:

a) Guraso bietako batek eskatu beharko du.

b) Beste gurasoari eta seme-alabei entzun egin beharko zaie.

c) Epaileari ez zaio adingabeen intereserako kaltegarria iruditu behar.

d) Epaileak ez du zailtasun objektibo gaindiezirik ikusi behar gurasoek etxebizitza lor dezaten.

e) Epaileak komenigarria iritzi behar dio familia harremanei begira.

2. Familia-harremanen planari buruzko akordioarik ez badago ere, gurasoetako bietako bakarrak ere ez badu eskatzen familia-etxebizitza saltzea, epaileak erabaki beharko du etxebizitza nola erabili, aintzat hartuta zer den onuragarriena seme-alaben interesentzat eta familia-harremanetarako, eta kontuan hartuta gurasoetako zeinek dituen, objektiboki, zailtasun handiagoak etxebizitza lortzeko.

3. Familia-etxebizitzaren erabilera esleitzen bazaio gurasoetako bati, esleipen hori aldi baterako izanen da. Gurasoak ez badira aldiaren iraupenari buruz ados jartzen, epaileak ezarriko du zenbat denborarako esleituko den etxebizitza. Epe hori luzatzeko modukoa izanen litzateke, aldi baterako betiere, eta luzapena, beranduenez, aurreko epea amaitu baino sei hilabete lehenago eskatu beharko litzateke.

4. Seme-alaba adingaberik baldin badago guraso bietako baten jagoletzaren pean, edo adinez nagusia den seme-alabarik bizi baldin bada guraso bietako baten mende, hain zuzen ere Kode Zibileko 93. artikuluko 2. lerrokan ezarritakoaren moduko mendetasunean, eta seme-alaba horien lehentasunezko interesa babeste aldera, etxebizitzaren erabilera seme-alabei esleidi dakieke, zeinak guraso jagolearekin batera biziko baitira. Gurasoak ez badira aldiaren iraupenari buruz ados jartzen, epaileak ezarriko du zenbat denborarako esleituko den etxebizitza. Epe hori luzatzeko modukoa izanen litzateke, aldi baterako betiere, eta luzapena, beranduenez, aurreko epea amaitu baino sei hilabete lehenago eskatu beharko litzateke.

5. Etxebizitza ezkontideetako baten edo haren familiarteko baten titulartasun pribatibokoa bada, ezin izanen zaio beste ezkontideari esleitu, non eta, salbuespen gisa, ez den modu arrazoituan justifikatzen, eta esleipen hori, betiere, aldi baterako izanen da. Gurasoak ez badira aldiaren iraupenari buruz ados jartzen, epaileak ezarriko du zenbat denborarako esleituko den etxebizitza. Epe hori luzatzeko modukoa izanen litzateke, aldi baterako betiere, eta luzapena, beranduenez, aurreko epea amaitu baino sei hilabete lehenago eskatu beharko litzateke.

6. Aldi baterako esleipen hori eginda ere, behin epe hori pasatuta edo etxebizitza lehenago saldu-ta, guraso ez-jagoleak kontraprestazio bat eskaini beharko luke, dagokion proportzioan, seme-alabek ziurtatuta izan dezaten etxebizitza duin bat eta aseak izan ditzaten beren ohiko beharrak. Horren guztiaren denbora-muga seme-alaben independentzia ekonomikoa izanen da, eta, halakorik ezean, 23 urteko adin-muga.

7. Esleituta duen bitartean, etxebizitza erabiltzen duen ezkontideak ordaindu beharko ditu erabilera horren ondoriozko gastuak. Hipoteka-zama duen etxebizitza baten kasuan, biek eginen diote aurre horri, duten partaidetza-kuotaren proportzioran.

8. Epaileak etxebizitzaren erabilera adingabeiei esleitzen dienean, eta gurasoek etxebizitza horretan txandaka egon behar dutenean, etxebizitzaren gastu guztiak erdi bana ordaindu beharko dira.

9. Edonola ere, ezkontideetako batek etxebizitza aldi baterako utzi behar duenean, eta ezkontideek pro indiviso baldin badute etxebizitza, joan behar duen horrek modua izanen du hartzeko, etxetik, bere arropa eta erabilera pertsonalekoak nahiz profesionalekoak diren gauzakiak; familia-etxebizitzan gelditzen diren gauzaki komunekin, inbentario judicial bat eginen da, non eta ez den besterik adosten.

10. Familia-etxebizitza erabiltzeko eskubidea kasu hauetan iraungiko da:

a. Aldeek adostutako arrazoiren batengatik.

b. Seme-alaben jagoletza dela-eta esleitu bazen, eta jagoletza hori amaitu bada.

c. Eskubidea aldeetako bati aldi baterako esleitu bazitzaion zailtasun handiagoa zuelako etxebizitza bat eskuratzeko, eta hauetakoren bat gertatzen bada:

c 1) Etxebizitza erabiltzen ari den gurasoaren egoera ekonomikoa hobetzea.

c 2) Etxebizitza erabiltzen ari den gurasoa ezkontzea edo bikotekide batekin modu egonkorrean bizitzen aritzea.

c 3) Ezarritako epea eta haren luzapena, halakorik erabaki bazen, amaitzea.”

Zioak: Modu orokorrean ezartzen bada familia-etxebizitzaren erabilera esleituko zaiola etxebizitza lortzeko zailtasun handiena duen gurasoari –arrazoi objektiboak kontuan hartuta–, era guztietako problemak sortuko dira (gatazka gehiago, iruzurrak, etab.), eta jagoletza partekatua baldintza ekonomiko beretan erabiltzeko zailtasunak ere bai (beste gurasoak antzeko etxebizitza bat lortzeko zailtasunak). Irabazpidezko ondasunak likidatzeko bidea emanda, gatazkak gutxiago izaten dira eta bazterketa ekonomikoko egoerak ere bai.

28. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hona testua (gaztelaniazkoan bakarrik du eragina):

“Artículo 8.- Gastos de asistencia a los hijos e hijas.

1. Tras la ruptura de la convivencia de los progenitores, ambos contribuirán proporcionalmente con sus recursos económicos a satisfacer los gastos de asistencia de los hijos e hijas a su cargo.

2. La contribución de los progenitores a los gastos ordinarios de asistencia a los hijos e hijas se determinarán por el Juez en función de las necesidades de los mismos, de sus recursos y de los recursos económicos disponibles por los progenitores.

3. El Juez podrá asignar a los progenitores la realización compartida o separada de los gastos ordinarios de los hijos teniendo en cuenta el régimen de custodia y, si es necesario, fijará un pago periódico entre los mismos.

4. Los gastos extraordinarios necesarios de los hijos e hijas serán sufragados por los progenitores en proporción a sus recursos económicos disponibles. Los gastos extraordinarios no necesarios se abonarán en función de los acuerdos a los que lleguen los progenitores y, en defecto de acuerdo, los abonará el progenitor que haya decidido la realización del gasto.”

Zioak: Zuzenagoa da.

29. ZUZENKETA

**CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS
DE NAVARRA**
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA

IV. kapituluua. Bitarteko eta zerbitzu publikoak

8. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona izanen duen testua:

“8 artikulua. Gurasokidetzarako Orientabidea emateko Zerbitzua.

1. Nafarroako Gobernuak nahi duten partikularren eta eskatzen duten organo judizialen eskura jarriko du Gurasokidetzarako Orientabidea emateko Zerbitzua, zeinak gurasoei aukera emanen baitie seme-alaben hazkuntzaren eta garapenaren betebeharrak modu partekatuan berenganatzeko.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek behar diren neurri guztiak sustatuko dituzte guraso guztiek beren betebeharrak bete ditzaten.”

30. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK
AURKEZTUA

9. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Arartekoaren gomendioari jarraituz, proposatzen da aparte arautzea seme-alabak dituzten bikoteen haustura eta desoreka ekonomikoagatiko konpentsazioa, hau da, ezkontide edo bikote egonkorreko kideetako batek, bereiztean, bestearen posizioarekin alderatuta izan dezakeen desorekagatiko konpentsazioa.

31. ZUZENKETA

**CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS
DE NAVARRA**
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona izanen duen testua:

“9 artikulua. Aholkularitzako eta Bitartekotza Ekonomiko eta Finantzariorako Zerbitzuak.

1. Nafarroako Gobernuak eskatzen duten organo judizialen eskura jarriko du aholkularitza eta bitartekaritza ekonomiko eta finantzariorako zerbitzu bat, zeinak erraztuko baitu banantze eta dibortziatze prozesuetako erabaki ekonomiko eta onda-

rezkoak hartzea, bai eta elikagaien arloko gastuak eta seme-alaben premietarako gastuetan laguntzeko neurriak ere.

2. Bi gurasoek, ados daudela, aholkularitzarako eta bitartekaritza ekonomiko eta finantzariorako zerbitzuaren esku-hartzea eskatu ahalko dute, nahiz eta elkarrekin akordio batera iritsi gabe egon zaintza eta jagoletza betetzeko neurriei dagokienez.

3. Zerbitzu hori doakoa izanen da, doako justiziarako eskubidearen gaineko arauetan ezarritako moduan.”

32. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK
AURKEZTUA

V. kapituluaren aurretik beste kapitulu bat gehitzeko zuzenketa.

Testu berria:

“Kapitulu berria.

Seme-alabarik beren kargu ez duten senar-emazteen ezkontza-loturaren desegitea

Artikulu berria. Hitzarmen arau-emailea.

1. Beren kargu seme-alabarik ez duten senar-emazteen banatzea, dibortzioa edo horien ezkontzaren deuseztasuna lortzeko epaileari aurkeztu beharreko hitzarmen arau-emaileak honakoak jaso beharko ditu gutxienez:

a) Senar-emazteen ondasunen araubidearen likidazioa, beharrezkoa denean.

b) Kaltetuenari, halakorik badago, zer konpentsazio emanen zaion.

c) Aldeek beharrezkotzat jotako beste edozer.

2. Epaileak onartu eginen du hitzarmen arau-emailea, salbu eta bete beharreko arauen kontra-koak diren alderdiei edo ezkontideetako batentzat larriki kaltegarriak direnei dagokienez. Hitzarmen arau-emailea, osorik nahiz hein batean, onesten ez bada, ezkontideei epe bat emanen zaie beste hitzarmen bat proposa dezaten, epaileak onetsi ez dituen alderdietara mugatua, kasua bada. Hitzarmen berria aurkeztuta, edo emandako epea hitzarmenik aurkeztu gabe iragan bada, epaileak kasu-an kasuko ebazpena emanen du.

3. Hitzarmen arau-emailean islatuko den konpense hitzartu bat iristea helburu, ezkontideek Familia Bitartekotzako Zerbitzua erabiltzen ahalko

dute, lege honetan horri buruz ezarritakoa kontuan hartuta.

Artikulu berria. Ezkontideek hitzarmenik adostu ezean.

Ezkontideek hitzarmenik ez badute adosten, edo hitzarmen arau-emailea ez bada onesten, epaileak, ofizios edo aldeetako batek eskatuta, beharrezkoak diren neurriak ezarriko ditu senar-emazteen ondasunen araubidearen likidazioari dagokionez eta, kasua bada, desoreka ekonomikoagatik ezkontideetako bati ematekoa den konpentsazioari dagokionez; era berean, kasuan-kasuan beharrezkoak diren kautela-neurriak edo bermeak ere ezarriko ditu, kontzeptu horietakoren baterako ez badago halakorik ezarrita.

Epaileak, halaber, familia-etxebizitzaren eta ostilamenduaren nondiko norakoak erabakiko ditu, lege honetan ezarritako irizpideak kontuan hartuta?

Zioak: Arartekoaren gomendioei jarraikiz, seme-alabarik gabeko familia-bizikidetzaren haustura arautzea proposatzen da. Seme-alabarik beren kargura ez duten bikote egonkorren haustura ez da kontuan hartzen proposamen honetan, zeren eta jada berariak jasota baitago hori Bikote Egonkorren Berdintasun Juridikoari buruzko 6/2000 Foru Legean.

33. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste kapitulu bat gehitzeko zuzenketa (V. kapituluaren aurretik eta aurreko kapitulu berriaren ondotik).

Testu berria:

“VI. kapitulua
Konpentsazio-esleipena

1. Bikotearen bizikidetzeta hautsi eta, beren kargu seme-alabarik izanda, hausturaren ondorioz ekonomikoki desorekatuta gelditzen denak, ezkontidearekin edo bikote egonkorreko beste kidearekin alderatuta, bestearekin batera bizi zenean baino egoera okerragoan hain zuzen, eskubidea izanen du beste horrek konpentsazio bat eman diezaion familia-harremanen planean jasotzen den moduan.

Ezkontideek edo bikote egonkorreko kideek hitzartu egin dezakete konpentsazio hori batera bizitzen hasi baino lehen edo batera bizi diren bitartean, eta bizikidetzeta hautsi ondoren ere bai.

Ezkontideek edo bikote egonkorreko kideek Familia Bitartekotzako Zerbitzua erabiltzen ahalko dute, lege honetan jasotako moduan hain zuzen.

2. Ez bada adosten konpentsazioa bidezkoa den edo ez, zenbatekoa behar duen, nola eguneratu eta zenbat behar duen iraun, epaileak zirkunstantzia hauek pisatuko ditu:

i. Ezkontide bakoitzak zer baliabide ekonomiko dituen, eta, bereziki, ea pentsioa eskatzen duenaren baliabide ekonomikoak aski diren, berez eta alde batera utzita konpentsazioa, gutxieneko bizi-maila bati eusteko.

ii. Eskatzailearen adina, osasun egoera, kualifikazio profesionala eta laneratzeko aukerak.

iii. Seme-alaben adina, kasua bada.

iv. Nori esleitu zaion familia-etxebizitzaren eta ostilamenduaren erabilera.

v. Ezkontide bakoitzak gauzatu dituen eginkizunak, kasua bada.

vi. Zenbat denboraz bizi izan diren benetan elkarrekin.

Epaileak beste zirkunstantzia garrantzitsu batzuk ere kontuan hartzen ahalko ditu; hala gertatuz gero, justifikatu egin beharko ditu epaian.

3. Konpentsazioak ondarezko edozein eduki izan dezake, aldizkakoa edo behin emanda amaitzen dena.

Kompentsazioak pentsio forma duenean, pentsio hori epe baterako emanen da, non eta epaileak ez dituen salbuespenezko zirkunstantziak ikusten, pentsioa mugagabea izatea justifikatuko luketenak.

4. Konpentsaziorako eskubidea amaitu egingen da, baldin eta konpentsazioa jasotzen duena berriro ezkontzen edo ezkondu-bizitza egiten hasten bada, bere egoera ekonomikoa gutxieneko bizi-maila izateko adina hobetzen bada, ordaintzeko betebeharra duenaren egoera ekonomikoa okertu egiten bada, konpentsazioa jasotzen zuena hil egiten bada edo ezarritako epea amaitzen bada”

Zioak: Gaian aditu direnen gomendioen arabera, horrek dirudi formularik egokia.

34. ZUZENKETA

**CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS
DE NAVARRA**
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona izanen duen testua:

“10. artikulua. Adingabeei arreta eta laguntza beren inguruneetan ematea.

Arreta ikastetxeetan emanen zaie. Ikastetxeetako orientatzaileek eta, kasua bada, adingabearentzat hurbilen dagoen irakasleak hartuko dute parte.”

35. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK
AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“Seme-alabak bere kargura dituzten gurasoen bizikidetasuna hausten den kasuetan, epaileak behin-behineko neurriak ezarriko ditu familia-harremanei dagokienez, foru lege honetan ezarritako irizpideekin bat, baldin eta aitak, amak, euren kargura dauden 14 urtetik gorako seme-alabek edo Fiskaltzak, seme-alaba adingabeak eta ezgaituak babesteko legezko eginkizunari jarraikiz, hala eskatzen badute”

Zioak: Lege honetan jasotzen diren alderdi guztiek behin-behineko neurriei aplikatzeko modukoak izan behar dute. Horrenbestez, “ezarriko ditu” jarrita, lortzen dena da epailearen behin-behineko neurriek legean jasotakoa izan dezatela oinarri eta bat etor daitezela legean jasotakoarekin.

36. ZUZENKETA

**CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS
DE NAVARRA**
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA

11. artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“11. artikulua. Alokairuko araubideko etxebizitzak.

Nafarroako Gobernuak, Vinsaren bitartez, organo judizial guztien eskura jarriko du alokairuko araubideko etxebizitzaren poltsa bat, guraso-ahal bateratuko prozesuetan erabil dadin”

37. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEEK
AURKEZTUA

Xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposatutako aldaketak kontuan hartuta, soberan dago alde aurretik hartuta zeuden hitzarmen arau-emaitzen eta neurri judizialen berrikusketa judiziala, nahiz eta hori ez den eragozpen epaileari eskatzeko kasuan kasuko berrikusketa egin dezan indarreko legediak jasotzen duen moduan; era berean, soberan dago familia-bitartekotzako foru legearen aipamena.

38. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK
AURKEZTUA

Xedapen iragankorreko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“Gurasoetako batek jagoletza partekatua eskatzen baldin badu, aurreko legediari jarraikiz foru lege honek indarra hartu aurreko hiru urteetan hartutako neurri judizialak eta hitzarmen arautzaileak berraztertu eginen dira. Epe horretan, lan hori egiteko beharrezkoak dituzten bitartekoez hornituko dira epaitegiak”

Zioak: Epaitegiei lan-zama arintzea, uste baitugu urtebete ematen bada eskaera-demandak aurkezteko, epaitegiak kolapsatu egin daitezkeela, betiko lanez gain demanda berri horiei ere aurre egin beharko baitiete.

39. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK
AURKEZTUA

Xedapen iragankorreko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“Azken xedapenetako lehenak aipatzen duen familia-bitartekotzari buruzko foru legea indarrean sartu arte, gai hori Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeko arauen pean geldituko da”

Zioak: Nafarroako Gizarte Laguntzaileen eta Gizarte-laneko Diplomatuaren Elkargo Ofizialaren gomendioa.

40. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarriak eta azken xedapenak aldatzeko zuzenketa.

“Lehen xedapen iragankorra. Familia-bitartekotzaren Zerbitzuak premiei erantzuten ez dien bitartean, Nafarroako organo judizialek elkarrekiko akordioetako aurretiazko adiskidetze eta esku-hartze kasuak kasuko lanbide-elkargoek berariaz aitortutako Familia-bitartekotzako profesional espezializatuei enkargatu ahalko dizkie.

Enkargatutako zerbitzu profesionalen kostua doako justiziarako eskubidearen estalduraren barruan sartuko da, halako eskubiderik aitortu den kasuetan. Doako justiziarako eskubidearen onuradunak edo enkargatutako profesionalek Nafarroako Gobernuari exijitu ahalko diote zerbitzu horiek ordaintzeko.

Bigarren xedapen iragankorra. Foru lege honetan aurreikusitako zerbitzuetarako zuzkidura ekonomiko egokia jartzen ez den bitartean, haien kostua doako justiziarako eskubidearen tresnaren bitartez ordainduko da, hain zuzen ere lehenengo xedapen iragankorrean ezarritakoaren bitartez.

Lehenengo xedapen gehigarria. 1. Haur eskolatan eta haurtzaindegi publikoetan izena emateko prozesuetan, guraso-ahal partekatuz baliatzeko egoerak aldeztuko dira, behar diren zerbitzuak eta instalazioak edukitzeari buruz haurrak daukan eskubideari dagokionez Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan ezarritako betebeharrak betetze aldera.

2. Haurtzaindegi eta haur eskola publikoetan tokirik ez dagoen bitartean, gurasoak eskubidea du PFEZean zerga-kenkaria aplikatzeko.

3. PFEZean aplikatzekoa den zerga-kenkariaren ondorioetarako, elikagaiengatik pentsioaren zerga-kontzeptuarekin parekatuko da, eta haurtzaindegi baten edo haur eskola publiko baten eta haurra dagoen haurtzaindegiaren edo haur eskolaren kostuaren arteko aldea, eta, horrenbestez, kendu ahalko da. Zerga kenkari hori aplikatzeko, agiri bidez frogatu beharko da haurra ez dutela haurtzaindegi edo haur eskola publiko batean hartu eta frogatu beharko dira, halaber, hartarako

ezarritako prezioa eta publikoa ez den haurtzaindegiaren edo haur eskolaren kostua.

Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, bost eguneko lan baimenerako eskubidea ezartzen da banantze- edo dibortzio-prozesu judizial batean dauden langile guztientzat. Baimen hori gozatu ahalko da helbidearen aldaketa jakinarazten denetik edo bizikidetasuna eteteari buruzko ebazpen judizialaren egune-tik.

Azken xedapena. Arau honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.”

41. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Horri buruzko beste zuzenketa batzuetan argi gelditu da dagoeneko.

42. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Lehenengo xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

“Lehenengo xedapen gehigarria.

Foru lege honek aipagai dituenetan aurreikusitako gabe gelditzen den guztirako, Kode Zibilean xedatutakoa aplikatuko da.”

Zioak: Argi uzten du, segurtasun juridikoa handiagoa izan dadin, foru lege honek aipagai dituenak zerbaitetan osatu beharra gertatuz gero, Kode Zibilean gaur egun jasotakoa aplikatuko dela.

43. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Bigarren eta hirugarren xedapen gehigarriak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Zentzurik gabe gelditzen dira.

44. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEEK
AURKEZTUA**

Azken xedapenetako lehena aldatzeko zuzenketa. Hona izanen duen testua:

“Azken xedapenetan lehena. Arau-agindua.

Nafarroako Gobernuak, foru lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean, eta Foru Zuzenbide Zibileko Kontseilu Aholku-emaileak aldez aurretik txostena eginda, Nafarroako Parlamentuan foru lege proiektu bat aurkeztuko du Nafarroako Foru Berria aldatzeko, familia zuzenbideari dagokionez.”

Zioak: Seme-alaben jagoletzak, gurasoen bizikidetzaren hausten denean, eta horrekin lotuta sortzen diren gai guztiek Nafarroako Foru Berria jasota egon behar dute; Foru Berriak, gainera, familia zuzenbidearen araubidea garai berrietara egokitu beharra dauka. Aldaketa hori foru zuzenbide zibilean espezialista direnek egin behar dute, eta eztabaida tekniko eta sozial zabala ziurtatu behar da; aldaketak, era berean, gure foru zuzenbide zibilaren gainontzekoarekin bat etorri behar du, eta Konstituzioko aurreikuspenak errespetatu ere bai.

45. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEEK
AURKEZTUA**

Beste azken xedapen bat, azken xedapenetan lehena bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Azken xedapenetan lehena. Araugintza-agindua.

Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru dekretu bat onetsiko du arautuko dituen familia-bitartekotzako zerbitzuen antolamendua, funtzionamendua, eskumenak eta eskurantzak, familia-gatazkak konpontzea eta foru lege hau aplikatzea helburu.”

Zioak: Nafarroako Gobernuari ezartzea familia-bitartekotzako zerbitzua emateko modua arautzeko betebeharra, antolatzeko duen ahalmena errespetatuta.

46. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK
AURKEZTUA**

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa.

Testu berria:

“Nafarroako Gobernuak egokitu egingen du Etxebizitzari buruzko Legea, halako moduz non jagoletza partekatua alde egiten duten bikoteek lehentasuna izanen duten babes ofizialeko eta gizarte alokairuko etxebizitzak eskuratzekoan”.

Zioak: Ziurtatzea adingabeek guraso bietako edozeinekin izanen dutela etxebizitza duina.

47. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK
AURKEZTUA**

5. artikulua izenburua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“5 artikulua. Zaintza eta jagoletza”.

Zioak: Zuzenagoa dirudi.

48. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK
AURKEZTUA**

7. artikulua izenburua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“7 artikulua. Familia-etxebizitza eta -ostilamendua”.

Zioak: Kapitulu honetan ez da erabilera bakarrik arautu behar, baita balizko likidazioa ere. Horrela, proposatzen den izenburuak biak hartzen ditu.

49. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK
AURKEZTUA**

IV. kapituluaren izenburua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“Familia-harremanei buruzko hitzarmenean adostasunik lortu ezean aplikatu beharreko neurriak”

Zioak: Familia-harremanen hitzarmena aurkeztea nahitaezkoa izanen da. Beraz, hitzarmenik eza ez da posible; izatekotan, horri buruzko adostasun eza egotea da posible.

50. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Foru Legearen titulua aldatzeko zuzenketa. Hona proposatzen den testua:

“Guraso-ahalaren erabilerari eta gurasokide-tzako betebeharrak betetzeari buruzko Foru Legea”

51. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Izenburua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“Bikotearen Bizikidetzeta Hautsi Ondoko Harreman Familiarrei buruzko Foru Lege proposamena.”

Zioak: Lege proposamen honek zaintza eta jagoletza baino askoz ere gai gehiago hartzen ditu; esate baterako, etxebizitzaren erabilera, familia-bitartekotza eta bestelako neurri pertsonalak.

52. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Foru lege proposamenaren izenburua aldatzeko zuzenketa. Hona proposatzen dena:

“Seme-alaben jagoletza gurasoen bizikidetzeta hausten den kasuetarako arautzen duen Foru Lege proposamena.”

53. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

“Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 48. artikulua arabera, Nafarroak eskumen osoa du foru zuzenbide zibilararen arloan, eta Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioaren edo Foru Berriaren zainketa, aldaketa eta garapena foru lege bidez eginen da, behar izanez gero.

Nafarroako zuzenbide substantiboaren berezitasunetatik heldu den Foru Zuzenbide Zibila eta Zuzenbide Prozesala eguneratzeko zereginaren barruan ematen da (Konstituzioko 149.1.6 artikulua) foru lege hau, xede duena familia-harremanak arautzea eta jagoletza partekatua sustatzea gurasoen bizikidetasuna hausten den kasuetan.

Adingabearen eta familiaren babesari buruzko kezka izan dute beti demokrazia garatuenek. Printzipio hori Konstituzioko 39. artikuluan dago jasota. Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioak ere –Nazio Batuen 1989ko azaroaren 20ko Batzar Nagusiak aldarrikatu zuen, eta Espainiak 1990eko azaroaren 30ean berretsi– estatuak behartzen ditu errespetatzea haurrek bi gurasoekin modu erregularrean harreman pertsonala eta kontaktu zuzena izateko duten eskubidea.

Familia-bizikidetasuna hausten den kasuen kopurua nabarmen igo da azken hamarkadan; halakoetan, konpontzen korapilatsuenetarikoa izaten da seme-alaba komunen zaintzaren eta jagoletzaren auzia. Auzi hori, gaur egun, Kode Zibileko 92. artikulua arautzen du –Kode Zibila uztailaren 8ko 15/2005 Legeak aldatu zuen–; horren arabera, gurasoak ados jarri ezean, salbuespena izanen da zaintza eta jagoletza partekatua, eta beharrezkoa izanen da Fiskaltzak aldeko txostena ematea. Manu horren aplikazioak ekarri du, errealitatean, jagoletza banakakoa ematea orokorrean emakumeari. Halere, gizartearen bilakaerak eskatzen du zaintzari eta jagoletzari buruzko araudia eguneratzea, seme-alabek kontaktu jarraitua izate aldera gurasoekin, aita-amen arteko berdintasuna xede.

Bereizketa egin beharra dago, batetik, titularitatearen eta guraso-ahalaz baliatzearen eta, bestetik, zaintzaz eta jagoletzaz baliatzearen artean. Azken hori gurasoek adingabearekin egoteko duten eskubideari buruzkoa da, eskubide hori guraso-ahalaren osagai bat baita. Bikotea banatzen edo hausten denean, ez da batera gozatzen,

normalean, seme-alaben konpainiaz; hori dela eta, beharrezkoa da gurasoek berek edo epaileak zehaztea noiz egonen den adingabea guraso bakoitzarekin.

Argi utzi beharra dago ezen, seme-alaben zaintzaz ezartzen dena alde batera utzita, guraso-ahaletik eratoritzen diren gainerako eskubide eta ahalmenak bi gurasoek batera gordetzen dituztela, zeren eta biek baitute guraso-ahala. Bereizteak ez du berarekin ekartzen jagoletza ez duen gurasoak bere esku-hartzea mugatuta edukitzea pentsioa ordaintzera eta bisita jakin batzuk egitera.

Horrenbestez, jagoletza partekatuaz hitz egiten dugunean, hitz egiten ari gara adingabeak bere denbora bi gurasoekin partekatzeko eskubidea artikulatzeko moduz, eta ez guraso-ahalaz eta hark berarekin dakartzan eskubideez. Ahaleginak egin behar dira seme-alaba gurasoekin egon ahal izateko eskubidea modu ahal den berdinzaleenean bete dadin eta, aldi berean, familia horren beharrei eta errealitatei hobekien egokitzen zaien moduan. Ez dugu zaintza partekatua nahastu behar seme-alabek guraso bakoitzarekin denbora berbera pasatzearekin. Jagoletza partekatuak erreferentzia egien die biek hazkuntzan eta hezkuntzan ardurakidetzat izateari, bakoitzak dauzkan baliabideen proportzioan, eta seme-alaben premien arabera.

Haurren Eskubideei buruzko 1989ko azaroaren 20ko Konbentzioak familia zentzu zabalean aipatzen du, eta hartan sartu nahi ditu munduan diren familia-sistemen aniztasun zabala. Konbentzioak familia zabala aipatzen du. Konbentzioaren arabera, balizko hausturen gainera harreman trinkoagoa eta ahal den handiena lortu beharra dago seme-alabaren eta haren gurasoen artean.

Bikotearen hausturak ez du berarekin ekarri guraso bakarreko egoera bat. Gurasoen baterako erantzukizuna sustatu beharra dago, hautatu behar ez izateko gurasoen artean zein izanen den jagolea eta zein bisitaria.

Konbentzioaren 7. artikuluan aitortzen da seme-alabak eskubidea duela bi gurasoek zaindua izateko, hori bidezkoa den guztietan. Bi gurasoek, haustura baino lehen eta hausturaren ondoren, baterako erantzukizuna dute beren seme-alabekiko, eta horri dagokionez, jagoletza partekatzearen bideragarritasuna sustatzeko neurriak hartu behar dira. Kanpo dauden gurasoen figura eta horren ondorioak saihestu behar dira.

Ezin da abiapuntutzat hartu errudunen eta errugabeen ideia, pertsona onena eta gaiztoena. Bi gurasoetako bakarrak ere ez du egoera berria-

ren errurik, baina biek dute hura kudeatzeko erantzukizuna.

Eta erantzukizun hori dela eta, ahalegin bat egin beharra dute akordioetara iristeko, gurasokidetzat gauzatze aldera. Kontua ez da egoerak idealizatzea. Ezin dugu pentsatu jagoletza partekatzea erraza denik, hura hausturaren aurretik ere partekatzen ez baldin bazen. Lehentasuna eman behar zaio aldean arteko akordio erreal bat bilatzeari. Hausturaren aurretiko proiektu batean oinarritutako hezkuntza bati jarraitutasuna emateko aukera bilatzen ari gara. Konponbideak ezin dira estandarrik izan, zeren eta familiek, gaur egun, ez baitute ez funtzionamendu estandarrik, ez arazo tipifikaturik, zeinei edozein kasutan errezeta batzuekin konponbidea emanen zaien.

Une honetara arteko auzietan emandako epai gehienek zaintza eta jagoletza alde bati eman izan diote, normalean amari, eta txandakako asteburuetan eta asteazken arratsaldeetan bisita araubideak aitortu izan zaizkio jagoletzarik ez duen gurasoari; horretaz gainera, oporraldiak modu parekatuagoan banatzen ziren. Horrekin batera, aipamen zuhur bat agertu ohi zen, guraso-ahala partekatzeari buruzkoa, baina ez zen horri buruz ezer ere azaltzen eta, askotan, jagolea izan da jagoletza terminotik legez ondorioztatzen dena baino askoz gehiago bereganatu duena, eta ez jagolea ez dena, zeinak ia dena galdu izatearen irudipena izan baitu. Gizartearen bilakaerak exijitzen du zaintza eta jagoletzaren araubide berria egitea, seme-alabek beren gurasoekin harreman jarraitua izan dezaten errazteko.

Foru lege honek, gizartearen eskari handiari erantzunez, aldaketa dakarkio eskema tradizionalari. Proposatzen dugu banakako jagoletzaren aurrean jagoletza partekatua ez izatea kasu berezi bat, gurasoen arteko bizikidetasuna hausteko kasuetan, alde batera utzita aurretik familia-harremani buruzko hitzarmen bat egiteko aukera, zeina profesionalen laguntzarekin erdiesten saiatuiko baikara. Lege honek azpimarra jarri nahi du akordio batera iristeak daukan garrantzian, eta horretarako, lehendik dauden edo etorkizunean izan daitezkeen baliabide publikoen erabilera sustatu nahi du.

Jarrera honekin, etorkizun ez oso urrun batean, hazi egingo gara geureak ditugun betebeharrak familiarrez arduratzen den gizarte modura, eta egunero planteatzen daitezkeen ezin konta ahala egoera konpontzeko gai izanen gara.

Argi dago zein diren jagoletza partekatuaren abantailak. Sistema horrekin eutsi egiten zaie afektibitate loturei, eta guraso biek harreman

jarraitua izatea lagungarria da seme-alabek hobeto onar dezaten egoera familiar berria. Horrela, ba, bi gurasoak egiaz inplikatzeko dira seme-alaben hezkuntzaren eta garapenaren arlo guztietan, eta gurasoen arteko auzi-kopurua murriztu egiten da; izan ere, jagoletza guraso bakar bati emateak are-agotu egiten ditu sarritan gatazkak, seme-alabekiko harremanen esparruan sortzen den desberdintasunaren kariatara.

Printzipiook dira, bateratuta, lege honen oinarria:

1.- Gurasoen ardurakidetzaren printzipioa.

Ziurtatzen du guraso biek modu berdintsuan hartuko dutela parte beren seme-alaben zaintzan, hezkuntzan eta horien interesei eragiten dieten erabakietan.

2.- Adingabeek jagoletza partekaturako duten eskubidea.

Adingabeek, bikotea hautsi ondoren, eskubidea dute guraso biek hazteko eta bizitzeko, jagoletza partekatuko bizikidetzaren sistema ahalik eta berdintasunezkoen; betiere, gurasoetako batek eskatzen bada eta ez bada adingabeen interesen kontrako.

3.- Adingabeek eskubidea dute jagoletza ez duen gurasoarekin harremanak modu erregularrean izateko, eta guraso bien familia zabalarekin ere bai.

4.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun efektiboa.

Bultzatzen duena da ezen gizonen eta emakumeen arteko harremanek, haustura baino lehen, bitartean eta ondoren, oinarri izan ditzatela elkarrikitasuna, errespetua eta berdintasuna.

Zioak: Batzordetik pasatu diren taldeen ekarpenak sartzea.

54. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztzea proposatzen da:

“Gaurko gizartean, zalantzarik gabekoa da aldaketa sozial eta kulturalen eta jokabide-aldaketen eragin handia duen erakundea dela familia. Familiak gizartean duen aintzatespena honakoaren baitan dago: gizarte-integratzaile, balioak transmititzeko, gizarte ehundura birsortzeko, giza-

banakoen arteko elkartasunerako eta pertsonak babesteko eragile gisa daukan izaera. Balorazio berri bat atzematen da, gehiago lotura psikologikotik oinarritzen dena, babeserako laguntzarako eremu gisa, lotura biologikotik baino. Edozein planteamendu berri familia-moduen malgutasunaren ideiatik abiatuta egin beharko da, aurreko eredu hegemonikoa desagertzen ari baita. Harreman pribatuei buruzko adostasunak antolamendu-modu berriak dakartza, jada izaera publikoa hartu duen eta erakunde-formula berriak –juridikoak zein fiskalak, sozialak eta abar– eskatzen dituen auzitasun batekin.

Bizikidetasun-modu berriei buruzko arau juridikoen sorrera da eredu tradizionaletatik deslotutako familia-jokabide orori zilegitasun publikoa emateko eskaera gero eta handiago baten adierazpen bat. Banakako askatasunaz baliatzeko garaian permisibitate handiagoa izatea berrikuntza garrantzitsua ekartzen ari da. Horrek berarekin ekarri du familia-eredu tradizionalak gainditzea hura antolatze modu berriak bideratzeko, eta antolamendu-modu berri horiei eman behar zaie dagokien artikulazio juridikoa, haiek ondorengoengan, aldean eskubide eta betebeharrak, ondasunetan eta gainerako harreman juridikotik eragiten dituzten ondorioengatik.

Errealitate bat da bi sexuen rol sozialak elkarrengana gerturatzen ari direla, eta gerturatze hori baieztatzen du eginkizun argiki maskulinoen edo femeninoen ideia gainditzeko ari izateak. Gizartearen feminizazioa muntako errealitate bat da sexuen arteko berdinarazte-prozesuan, eta hori aldaketa sozial handienetako bat izan da.

Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa 1990eko azaroaren 30ean sartu zen gure antolamendu juridikoan, eta hala eta guztiz ere oraindik ere ez ditu eragin bere 18. artikuluan eskatzen diren aldaketa juridikoak; izan ere, artikulua horretan, Nazio Batuen Biltzar Nagusiak kide diren estatuei ahal den ahalegin handiena eskatzen die printzipio bat ziurta dezaten, alegia, bi gurasoek betebeharrak komunak dituztela haurren hazkuntzari eta garapenera dagokienez.

Egokia dirudi, horrenbestez, familia-kodea guztiz berrikusteak, beste erkidego batzuek egin duten bezala. Nafarroako Foru Zuzenbideak aurrera egin behar du familia dela eta gertatu diren aldaketak aintzat hartzeko behar diren aldaketa juridikoak sartzeko prozesuan.

Baina presakotzat eta berehalakotzat jotzen da banantze eta dibortziazte prozesuetako gatazka judizialetan kateatuta aurkitzen diren arazoei erantzun bat ematea.

Azken urte hauetan, gai honetan eta beste batzuetan ere, organo judizialak gainezka daude egoera sozial konplexuak ebazteko beharra dela eta; egoera horietan, ia izaera pertsonalekoak diren erabaki eta erantzukizunak azaltzen dira.

Jagoletza partekatu gisa ezagutzen denaren kasua da, non ia ahalegin guztiak jartzen baitira jardun judizialak konponbideak eman ditzan erabakiak hartzeko. Erabaki horiek dagozkie, lehenbizi, gurasoei eta, azken batean, administrazio publikoari, zeinak behartuta baitaude betebeharrak betetzeko bitarteko eta zerbitzuak ematera.

Bada, arlo horretan foru zuzenbide zibilak eztabaida judizialaren aurretiko mekanismo bat eskaintzen du. Horrela, Nafarroako Foru Berriko 63. Foru Legean aurreikusen da, alde batetik, ahaide nagusien esku-hartzea, zeina, gaur egun, ezinbestez osatu beharra baitago lanbide-bitartekotzaren zerbitzuarekin. Ahaide nagusien foru instituzioarekiko erabateko koherentziaz jokatzeko, zergatik ez arbitrajea bera? Horrekin bazter utziko litzateke ezkontza-prozesu askotan gertatzen den frentismoa. Foru lege honek bitartekotzaren esku-hartzea jaso eta egokitu besterik ez du egiten.

Nafarroako Foru Berriko 63. Foru Legearen aurreikuspenarekin bat, aurretiazko eta aginduzko bi izapide formulatzen dira: bi gurasoei entzun beharra, zeina Kode Zibil komunean ere jasotzen baita, eta foru zuzenbide zibilak berariazko duen adiskidetzeko ahalegina.

Horrelaxe jasotzen da foru lege honetan. Bitartekotza-zerbitzu bati enkargatutako aurretiko adiskidetzea, lan gatazken esparruan lortu ohi den arrakasta bera lortuko delakoan. Eta bi gurasoei entzuteko izapidea, planteatuz beraiek proposamen bat egin dezaten bi gurasoek haurraren hazkuntzan eta garapenean betebeharrak komunak izatearen printzipioa betetze aldera.

Organo judizialek jagoletza partekatuari buruzko erabakiak hartuko dituzte (edo, bestela, bai guraso-ahala eta bai gurasoentzako betebeharrak komunak batera betetzeari buruzkoak), gurasoak berak hori normaltasunez egiteko prestatuta dauden neurrian eta, halaber, seme-alaben hazkuntzari eta garapenari dagozkien zereginetan baterako jardute hori ziurtatzen, errazten eta sustatzen duten bitartekoak dauden neurrian. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak berriz ere eskatzen du behar diren neurri egoki guztiak hartzea seme-alabek behar diren zerbitzu eta instalazioez baliatzeko eskubidea izan dezaten”.

55. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEEK
AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztzea proposatzen da:

“Familiaren eta haurren babesa, zeina Konbentzioaren 39. artikuluan aldarrikatzen baita, politika sozialaren eta ekonomikoaren printzipio gidarietako bat da, eta botere publikoak behartzen ditu beharrezko neurriak hartzera babes hori benetan gauza dadin.

Bizikidetzaren hausteak ez ditu gurasoak salbuesten bere seme-alabekiko betebeharratik, eta, horrenbestez, zenbait neurri hartu beharra dago adingabeen eta dituzten eskubideen babeserako, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errespetatuta.

Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioak –Nazio Batuen 1989ko azaroaren 20ko Batzar Nagusiak aldarrikatu zuen, eta Espainiak 1990eko azaroaren 30ean berretsi– estatuak behartzen ditu errespetatu dezaten haurrek bi gurasoekin modu erregularrean harreman pertsonala eta kontaktu zuzena izateko duten eskubidea, non eta hori ez den haurraren interes gorenaren aurkakoa.

Bizikidetzaren haustean denean, seme-alaba komunen zaintza eta jagoletza da konpondu beharreko arazo kontuzkoenetako bat. Kode Zibileko gaur egungo araubideak, nahiz eta jagoletza partekatua jasotzen duen, praktikan salbuespena da, gurasoen arteko akordiorik ez badago, eta Ministerio Fiskalaren aldeko txostena du baldintza.

Foru lege honekin nahi dena da, egungo gizarte-errealitatearekin bat, horrelako kasuak zuzendu, eta bidea eman joka dadin, gurasoak ados ez eta erabaki behar denean seme-alaba adingabeen gaineko jagoletzari buruz, seme-alaben interes gorena eta gurasoen berdintasuna aintzat hartuta.

Aurrekoa gorabehera, Gobernuari agindua ematen zaio foru lege proiektu bat aurkez dezan, urtebeteko epean, Nafarroako Foru Berria familia zuzenbideari dagokionez aldatzeko, hori baitu horrelako aldaketa batek esparru naturala, gainerrako instituzioekin integratuta, sistema koherente bat osatu behar baitu.

Nafarroak eskumenak ditu zuzenbide zibilarren arloan eta arlo prozesalean, berezkoa duen zuzenbide substantiboaren berezitasunen ondori-

oz, eta eskumen horiek oinarri hartuta onesten da foru lege hau”.

Zioak: Eginiko zuzenketen edukira egokitu behar du zioen azalpenak, eta koherentea izan behar du foru lege honen edukiarekin eta helburuarekin: jagoletza partekatuak salbuespena izateari utz diezaiola.
